

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4504

IRAGARKIA, 2025eko urriaren 14koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Arabako Lurralde Historikoko Oyón-Oion udalerriko «Bess Zapata» izeneko bateria bidezko biltegitratze elektriko sistemaren proiektua.

Energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan (2020-04-24ko EHAA) eta Sektore Elektrikoaren abenduaren 26ko 24/2013 Legeak (2013-12-27ko BOE) 54. artikuluan aurreikusitako ondoreetarako, instalazio elektriko hau jendaurrean jartzen da (horretarako aurretiazko administrazio-baimena eta eraikuntzako administrazio-baimena eskatu dira).

Espedientea: 01-GE-Y-2025-00020.

– Eskatzailea: Butroe SL (IFK: B56399017).

– Kokalekua: Oyón-Oion udalerrria, Arabako Lurralde Historikoa.

– Aurrekontua: 1.230.162,29 euro.

– Helburua: bateria bidez energia biltegitratzeko sistema bat instalatzea, sistema elektrikoari malgutasun eta fidagarritasun gehiago eman diezaion.

– Instalazioaren ezaugarriak: Pablo A. Cuela Murguia ingeniari tekniko industrialak sinatutako proiektuan jasotakoak.

– Eskareren helburua: aurretiazko administrazio-baimena eta eraikitze baimena.

Hori guztia argitaratzen da, interesdunek eta, oro har, herritarrek dokumentazioa azter dezaten Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz) eta Interneteko url honetan:

<https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako Lurralde Ordezkaritzari alegaziorik aurkeztu nahi izanez gero, honako aukera hauek daude: idatziz aurkeztu ahal izango da bertan, euskarri fisikoan; erregistro orokorrean; EAEko Administrazio Publikoaren erregistro elektronikoko orokorrean (<https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/>), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako moduren batean. Alegazioak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa da, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 14a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkarria,
JAVIER AIZPURU OCHOA DE ERIBE.